



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

EUSKARAREN HERRI HIZKEREN

ATLASA

(EHHA)

Burlatan, 2012ko ekainaren 7an

0. LABURPENA

Julio de Urquijok, Menéndez Pidalek, Azkuek, Mitxelenak eta, besteak beste, Villasantek ez zuten alferrik aipatu aspaldi euskarazko hizkuntz atlasaren beharrizana. *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a, beraz, hutsune hori betetzeko egindako ahaleginaren emaitza da. Eremu jakin bateko ahozko hizkuntzaren ezaugarrien gaineko informazioa jaso, aztertu eta lantzeko helburuarekin sortutako lana da hizkuntz atlasa. Euskarazkoa egiteko, Euskal Herriko ehun eta berrogeita bost herri edo auzotan hirurehun eta hemeretzi gizon-emakumeri ia hiru mila galdera egin zitzaizkien: guztira, grabatutako lau mila ordu baino gehiago. *EHHA*n, lexikoaz gain, morfologiari, joskerari eta joskera-fonetikari buruzko galderak egin ziren. Hain informazio ugaria husteko, argia eta zehatza da erabilitako metodologia. Era berean, informazioa antolatu eta lantzeko orduan oso lagungarria izan da egitasmorako apropos sortutako *EHHA aplikazioa*.

EHHA, beste hizkuntz atlasen argitalpen-datekin alderatuta, berandu samar heldu da; euskararen eta euskal kultura tradizionalaren ikuspuntutik, ordea, ez beranduegi: batetik, urte askoan euskararen plaza izandako eremu batzuetan euskara galdu egin da; bestetik, gizartea etengabe eraldatzen denez, toki batzuetan ia azkenetan da euskal gizarte tradizionalaren ibilbidea. Gutxigatik bada ere, *EHHA* toki askotara sasoiz heldu da bataren eta bestearen gainekoak biltzeko.

*EHHA*ren helburu nagusienetako bat jasotako informazioaren ustiapena eta zabalkundea izan da. Hori dela-eta, berrikuntza batzuk egin dira: maparen gainean transkripziorik ez azaltzea, koloreak erabiltzea, atlasaren tamaina handiegia ez izatea edo sarean kontsultagarri izatea, besteak beste. Izan ere, *EHHA* ez litzateke izan behar bildutako informazioaren azterketaren akabua, ezpada hasiera bera.

1. AURREKARIAK ETA SORRERA

Bideak oro har luzeak izaten dira ibilbide luzeak izaten diren kasuetan eta ibilbideak luzeak izaten dira bide luzeak izaten direnetan. Nahiz eta bide-erakusle askotarikoak izan, batzuetan nekeza izaten da bidearen hasierara jauzi egin eta ibilbideari ekitea. Horixe da, hain zuzen ere, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasarekin* gertatu dena.

Euskararen Herri Hizkeren Atlasak bide-erakusleak ugari izan ditu. Distantziari dagokionez, euskararen mugetatik kanpora ez da oso urrutira joan behar hizkuntz atlasen sorreraz eta presentziaz jabetzeko. J. Gilliéron izan zen aitzindaria eta lehen hizkuntz atlasaren sortzailea: *Atlas Linguistique de la France (ALF)*, 1902-1910. Ondoren etorri zen *Atlas Linguistique et ethnographique de l'Italie et de la Suisse Méridionale (AIS)*, K. Jaberg eta J. Juden eskutik eta *Atlas Lingüístico de la Península Ibérica (ALPI)*, batzuk aipatzearren.

Distantzian oso urruti joan behar ez bada ere, denboran asagotu beharra derrigorrezkoa da. *EHHA* egitasmo berankorra da dialektologian, baina horrek ez du inola ere esan nahi bitartean euskal dialektologia geldirik egon denik; ezta euskarazko atlas baten beharrez egon ez denik ere. Euskararen azterketarako balizko hizkuntz atlasak egiteak izango lukeen garrantzia azpimarratu izan dute behin baino gehiagotan euskaralari garrantzitsuetan garrantzitsuenek:

- 1918an, Julio Urquijok: “El Atlas Lingüístico no tiene nada que ver, como a primera vista pudiera creerse, con *la Carte Linguistique* en la que el Príncipe Bonaparte mostró la repartición o distribución de los dialectos y variedades del vascuence. Es un trabajo de muchísima transcendencia [...]. Inútil parece insistir en la urgente necesidad de formar el Atlas Lingüístico del País Vasco”.

- 1920an, Menéndez Pidalek euskal atlasaren ganean: “Únicamente he de asociar aquí mi deseo al de muchos de vosotros, porque la formación del “Atlas Lingüístico en Vasco” sea un hecho. Ya el señor Urquijo, en compañía del señor Lacombe, ha dado los primeros pasos para su estudio. En buenas manos, pues, está el proyecto; de esperar es que el apoyo de las Diputaciones lo haga realizable”.
- 1921etik 1930era arte zenbait mugimendu izan ziren batez ere Azkueren aldetik; izan ere, bere inguruko euskaltzainen artean *Erizkizundi Irukoitza* banatu zuen. Apurka-apurka euskalkiak behar besteko pisua hartzen joan ziren, harik eta gerrak, beste arlo askotan bezala, etena ekarri zuen arte.
- 1951an, Gerra ostean, Mitxelenak: “Es innecesario insistir acerca de la importancia de este proyecto que, Dios mediante, será una realidad dentro de no mucho tiempo para los estudios relacionados con la lengua vasca y la lingüística en general. Basta decir que desde hace muchísimos años constituye quizá el primer “desideratum” para cuantos se interesan por estos problemas. Los Amigos del País han visto con la máxima satisfacción, como es natural, esta feliz iniciativa del Consejo Superior de Investigaciones Científicas y han ofrecido su ayuda total para llevar a buen término esta empresa que llenará una necesidad que venían sintiendo dolorosamente”.
- 1957an, A. Tovarrek gutun bat idatzi zuen atlasa aipatzen zuena.
- 1960 eta 1961ean J. Allièresek “Petit Atlas Linguistique Basque-Français Sacaze” izeneko lana argitaratu zuen *Via Domitia* aldizkarian. Kartografia erabili zuen lehenengoetakoa izan zen: laurogeita hiru hitz aztertu zituen laurogeita hiru mapatan.
- 1960an, Mitxelenak berriro: “Un requisito indispensable y cada vez más urgente para el

progreso de nuestros estudios sería un Atlas lingüístico vasco”.

- 1964an, enegarrenez Mitxelenak: “El proyecto del Atlas lingüístico vasco, una vez se perdió la esperanza de que su elaboración pudiera tener una conexión directa con los trabajos del *ALPI*, estuvo durante un decenio en una fase de hibernación, sólo interrumpida por expresiones ocasionales de buenos deseos y por comentarios sobre su urgencia”.
- 1965ean, Allièresek atzera aipatu zuen Atlasa.
- 1974an, J.M. Sánchez Carrión “Txepetx”ek, Atlasaren arazo metodologikoez idatzi zuen.
- 1975ean, Villasantek: “Euskararen Atlas Linguistikoa. Horra beste asmo zahar bat, eta orain ere asmo bezala segitu beharko duena aurrera eramateko biderik ez dugun bitartean”.
- 1977an, J. Allièresek “Seme galduaren parabola”ren euskal itzulpenetatik hogeitau hitz aukeratu zituen eta mapetan jarri. “Petit Atlas Linguistique Basque-Français Bourciez” izan zen lanaren izenburua.
- 1980an, ahozko euskararen garrantzia bereziki azpimarratzen hasi zen sasoian, Euskaltzaindiaren eskutik Villasantek berba esanguratsuak esan zituen: “Eta aipatu baizik ez dut egingo, baina hor dago beste asmo zahar bat ere: Euskararen Atlasena. Beti asmo huts izan behar ote du? Ez ote da horretan pentsatzen hasteko garaia?”.

Urtea joan eta urtea etorri, hizkuntz atlasen sasoia akabura heltzen hasi denean heldu da *EHHA*¹ euskal hizkuntzalaritzara. Lehenago euskarazko atlasaren gainean idatzi denetan esan den bezala, *EHHA* berankorra da. Berankorra da bi alderdi kontuan hartuta: kanpoko eta barrukoa. Kanpoko aipatzen denean, beste atlasen argitalpen-datetara joaten da begia ezinbestean; barrukoa aipatzen denean, etengabe eraldatzen ari den euskal gizarteari eta euskal hizkuntzari

1 *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a horrela izendatuko da artikuluan zehar.

erreparatu behar zaio. Izan ere, denbora igaro ahala, ohiturak aldatu egin dira, berri batzuk sortu eta zahar batzuk desagertu. Ohiturak desagertu ahala, horiei dagozkien izenak eta informazioa ere desagertzear izaten dira. Era berean, urte askoan euskararen plaza izandako eremuetan euskarak izandako ibilbidea aztertu behar da. Izan ere, denbora igaro ahala, toki batzuetan euskararen eusle izan diren biztanleetako zenbait hil egin dira eta, ondorioz, euskara galdu egin da. Esan daiteke, beraz, *EHHA* berandu ibili dela, baina gutxigatik bada ere, oro har, ez beranduegi.

Ez zuen 1959an, Tovarrek alferrik esan: “En el caso del vascuence, donde el problema de la lengua hace dos mil años no nos lleva a un dato conocido como el latín, sino a una incógnita, un atlas lingüístico sería un importantísimo elemento de trabajo, pues nos descubriría sobre la historia de la lengua seguramente más de lo que podemos imaginar. Tal atlas es una de las tareas más urgentes de la lingüística vasca, y urge hacerlo cuando la vida moderna amenaza en todo el mundo a las lenguas y a diferencias dialectales”. Hala ere, bereziki azpimarratzekoa da azken urteotan hainbat eta hainbat eremutan euskara berreskuratzeko egindako ahalegin neurrigabea.

Beste batzuen arrastoen atzetik ibili, bide-erakusle onak izan eta norberaren bidea zelan egin erabakitzeko astitsu ibili izanak, ordea, baditu alde onak. Teknikari eta metodologiari dagokionez, denbora pasatzea ez da beti kaltetan izaten; ezta gutxiagorik ere! Urruti geratu da datuak bat-batean jasotzen zituzten garaia, bat-batean jasotzearen teknika bera edo beste atlas batzuen itxura eta egitura, esaterako.

2. ZER ETA NON?

2.1. Zer: galde-sorta

Atlas ona izatearen gakoetako bat emaitzen aberastasunean dago. Galde-sorta egokia izan

behar da, informazioa aberatsa eta zehatza izan dadin. Hasierako atlasetan batez ere lexikoa eta fonetika lantzen ziren arren, azkenekoetan, *EHHAn*, esaterako, aztergaia zabaldu egin da eta lexikoak, fonetikak, morfologiak eta sintaxiak ere dagokien lekutxo hartu dute. *EHHAn* guztira 2.857 galdera egin dira gutxienez. “Gutxienez” esaten da, beti ez baita gura den erantzunik lortu galdetutako lehen aldian.

Lexikoa: 2.163 galdera

Jokatzeko morfologia: 595 galdera

Joskera: 62 galdera

Joskera-fonetika: 37 galdera

GUZTIRA: 2.857

Egindako ia 3.000 galderetatik 800.000 erantzun lortu dira: horietatik 500.000 erantzunetatik eta 300.000 proposamenetatik. Orotara, grabatutako 4.000 ordu baino gehiago daude².

2.2. Non: inkesta-puntuak

Galde-sorta 145 herri edo auzotan —denak ez dira herriak—egin da.

BIZKAIA	36
GIPUZKOA	36
ARABA	1
NAFARROA	27
LAPURDI	15

² Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan daude grabazio guztiak, interesa duen orok kontsultatzeko moduan.

NAFARROA BEHEREA	18
ZUBEROA	12

3. METODOLOGIA

3.1. Bilketa

Ezer biltzen hasi aurretik derrigorrezkoa da lekukoak ondo hautatzea. *EHHAn*, jatorriz inkesta-puntuetako biztanle ezagun batzuk erabili ziren lekuko proposak hautatzeko bitartekari. Lekuko gehienak adinez oso gizon-emakume helduak izan ziren, eta inkesta-puntuetan jaiotako eta bizitakoak. Horiek horrela, guztira 319 lekuko elkartu ziren *EHHA* egitasmoaren inguruan.

Inkestei 1986ko neguan ekin zitzaizkien zazpi inkestagileren eskutik. *EHHAk* izandako ibilbide luzea kontuan hartuta, badira bi bereziki aipatu beharrekoak: Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain. Ibilbidearen hasieran izan ziren eta ibilbidearen parte dira gaur egun ere.

Inkesta-puntu bakoitzean hogeita hamar ordu inguru³ grabatu ziren. Galderak egiteko bide bat baino gehiago izaten da (itzulpena, perifrasi, *errealia*⁴...) eta egitasmo bakoitzak berea zehazten du. *EHHAn*, lexikoaren arloan, adibidez, itzulpenaren erabilera baztertu egin zen. Perifrasi erabili zen, baina ez perifrasi bakarrik. Arlo jakin batzuetan, perifrasiaren bidez azaltzeko nekezak zirenetan, irudiak edo argazkiak erabili ziren: arrainen edo narrastien kasuan, barbarako.

Hizkuntz atlas askotan, lekukoak zuzenean emandako erantzunak baino ez dira jaso. Hala ere, *A.L.G (Atlas Linguistique et ethnographique de la Gascogne)* delakoaren inkesta osagarrian "donées négatives" izendatuak sartu ziren: erantzunez gain, hau da, lekukoek euren kabuz emandakoez gain, artean esan gabeko hitz jakin bat edo batzuk erabiltzen zituzten jakiteko,

³ Bi ordu ingurukoa inkesta-saio bakoitza.

⁴ Irudiak edo argazkiak. Horrela izendatu izan dira *EHHA*ren berri ematen duten artikuluetan.

lekukoei proposatutakoak. *EHHAn* lan handia egin zen, proposamenekin osatutako 1.000 fitxa inguru egiteko eta proposamenak euskalkiz euskalki banatuta izateko. Proposatutako hitzak onartzen zituzten adierazteaz gain, lekukoek hitzaren gaineko ezagutza-mailaren berri emateko aukera izan zuten⁵: ea herriz kanpokoak zen; hitza ezagutu, baina esanahia ezagutzen ez zuen; esanahi desberdina zuen; nekez onartzen zuen, arkaikoa zen, eta abar. Horretaz gain, ibilian-ibilian etengabe izan da proposamen berriak sortzeko aukera.

EHHAn, lexikoan, hala erantzunetan, nola proposamenetan, lexema hutsa bilatu zen, artikulua eragina morfologiari eskainitako galderetan bildu baita. Forma mugagabea lortzeko ahalegina egitea adostu zen. Horretarako “bost” determinatzaile zenbatzailea erabili zen. Dena den, baldintza horrek edo besteren batek itsutu gabe, lekukoa azalpenak ematen zebilen artean ez moztea izan zen hartutako erabakietako bat: batetik, lekukoari konfiantza eman behar zaiolako eta egiten dabilenaz gustura sentitu behar delako; bestetik, konfiantza izanez gero, informazioaren kopuruari eta kalitateari begira, handiagoa eta hobe izaten delako. Hori horrela, erantzunak huts-hutsean emateaz gain, testuinguru interesgarriaz hornitzen dira. Egitasmo honetan erantzunei garrantzi handia ematen zaie, baina ez txikiagoa testuinguruan jasotako informazioari (ohiturak, sineskerak, abestiak, esaerak...), sarritan testuinguruak berak aberasten baitu erantzuna.

Erantzunen zehaztasunari erreparatzea ere garrantzitsua da. Galdera batzuetan ez da zalantzarik izaten. “Burro / âne” galderaren erreferentea eta izendapena, adibidez, garbia da, baina badira horren garbiak ez direnak: “buitre / vautour fauve” eta “águila / aigle royal”. Bestalde, jasotako emaitzak kontuan hartuta, badira zenbait nahasi samarrak gerta daitezkeenak, ikuspuntu okerra izanez gero: “bacalao / morue”, “merluza / merlu” eta “abadejo / colin”.

5 Aplikazioan zehatz adierazten da lekukoaren ezagutza-maila.

Nahasteko arriskua egon badago, berez kontzeptuak nahasiak izan daitezkeelako, batzuetan informazioa nahasia gerta daitezkeelako eta hiperonimoak, eufemismoak edo argotari dagozkion hitzak ere jaso direlako. Kontua da *EHHAn* edo gainontzeko atlasetan hiztegi bat ikusi nahi duena oker dabilela. Hiztegiari hiztegiaren izaera eta ezaugarriak eskatu behar zaizkio eta hizkuntz atlasari hizkuntz atlasarenak, nahiz eta horietako bakoitza ez den lan isolatua, informazioa isolatua ez den heinean.

3.2. Transkripzioa

Informazioa biltzeko moduan aldaketa handiak izan dira. Grabatzeko tresnak erabiltzeko modurik izan ez zen garaietan, bat-batean emandakoa bat-batean transkribatu behar izaten zen; horrek izan zezakeen arriskuarekin. *EHHAn*, aldiz, inkesta egin bitartean ezer ez transkribatzea erabaki zen, lekukoak esaten zuenari arreta handiagoa jartzeko. Informazioa ahalik eta bizkorren transkribatzea adostu zen; alegia, hurrengo egunetan, ez baita komenigarria izaten inkesta egin den egunetik transkribatzen denera denbora asko pasatzea.

Jasotako informazioa entzun eta entzundakoa koadernoetan eskuz idazten zen: lekukoaren kodea, zinta-bira, erantzun transkribatuak, proposamenak, kategoriak, mintzaeraren fidagarritasuna, erantzunaren fidagarritasuna, mugatua / mugagabea, oharrak eta ezagutzamailaren kodeak, besteak beste.

3.3. Datu-sarrera

Koadernoetan bildutakoa egoki antolatuta eta informatizatuta izateko *EHHA aplikazioa* sortu zen. Datuak informatizatzerakoan izandako arazo handienetakoa alfabeto fonetikoaren kodifikazioa izan zen. Egitasmoaren hasieratik bertatik argi izan zen arlo horretan beste atlas batzuek egindakoa ez zela errepikatu nahi; hau da, mapen gainean ez zela ikur fonetikorik

erabiliko. Horretarako, alfabeto fonetikoari egokitzapen ortografiko automatikoa ezarri zitzaien, irakurle-kopuru zabalago batengana heltzea eta informazioaren irakurketa erraztea izan baitziren helburu nagusiak. Izan ere, informazio fonetikoaren berri izan nahi duenak maparen bestaldean irakur dezake hori guztia zehaztasun handiagoz. Beraz, informazioaren kokapenean edo antolaketan dago aldea eta ez beste inon.

Fonetikoki transkribatu ziren, hortaz, lekukoak bere kabuz emandako erantzunak eta inkestagileak proposatutakoei emandakoak. Fonetikoki transkribatutakoez gain, bestelako oharrak sartzeko aukera ere izan da: erantzunei edo proposamenei dagozkienak eta bestelako informazio osagarria. *EHHA aplikazioak* ia nahi beste erantzun, proposamen edo ohar sartzeko aukera ematen du eta lekukoak emandako hurrenkeran antolatzen da guztia.

3.4. Elaborazioa

Behin beharrezko informazio guztia *EHHA aplikazioan* sartuta, informazio hori lantzea da hurrengo pausoa. Datu-sarreran bildutako erantzunak, bere kabuz emandakoak zein proposatutakoei emandakoak, lemen⁶ arabera antolatzen dira. Bildutakoa askotariko informazioa denez, elaboratzaileak berak erabakitako ezaugarriren baten arabera (etimologia, morfologia, fonetika...) antolatzen ditu eta horrela sortzen dira superlemak, mapara heltzen direnak.

Datu-sarreran ia nahi beste erantzun, proposamen eta ohar sartzeko aukera badago ere, mapan ez dago informazio neurrigabe hori guztia sartzeko modurik. Lekukoak bere kabuz emandako erantzunen artetik lehenengoa eta bigarrena maparatzen dira bakarrik, eta proposamenen artetik, lehenengoa. Gehiago izanez gero —ez da sarritan gertatzen—, “mapan sartzen ez diren erantzunak” deitutako atalean azaltzen dira.

6 Erantzunen eta superlemen arteko pausoa.

Herri bateko lehen erantzunak mapan herriari dagokion eremua koloreztatzen du; bigarren erantzunak beste kolore bateko tramaren bidez erakusten dira; eta, azkenik, proposamenak, beste kolore bateko zirkulu baten bidez. Mapak izatez bi motatakoak dira: hizkuntzazkoak eta etnolinguistikoak. *EHHAn* hizkuntzazkoak eta etnolinguistikoak eremuka lantzen dira; ez puntuka: ez da informazioa jaso den herri bakoitzaren gainean erantzuna idatziz agertzen. Eremuen arteko mugak erakusteko baliabide bat baino gehiago dago eta *EHHAk* koloreak erabiltzen ditu horretarako.

Mapa handia eta mapa txikia egiteko modua dago *EHHA aplikazioaren* bitartez. Mapa handian hamasei superlema edo multzo sar daitezke. Mapan bertan azaltzen den informazioaz gain, mapa-oharrentzat ere tokia dago. Datu interesgarriren bat mapa handian behar beste edo behar den moduan nabarmentzeko erarik izan ez den kasuetan, mapa txiki bat egiteko aukera ere badago. Mapa txikia egiteko prozedura mapa handia egiteko erabiltzen dena da, baina informazioa antolatzeko duen tokia da mugatuagoa. Mapa txikiari dagokiona azaltzeko tarteak, hala nahi izanez gero, arestian aipatutako mapa-oharretan dago.

4. EHHAREN EKARRIA

Egitasmo amaigabea den neurrian⁷, bere ekarria ere neurrian aztertu behar da. Aurretik egindako atlasak gutxi samar erabili izan dira eta, beraz, dialektologiari egin dioten ekarpena mugatu samarra da. Emandako erabilera, gainera, hizkuntzalaritzaren munduko jendearengana mugatu da, fonetikari buruzko gutxienekoko jakituria izan behar delako, esaterako. Halaber, hizkuntz kartografiaren ibilbidea luze samarra izan arren, hizkuntz atlas batetik bestera dagoen

⁷ Guztira hamabi liburuki izango dira eta laugarrena argitaratzeaz da, nahiz eta lana aurreratua izan.

aldea ez da oso handia. Hortaz, *EHH*Ak, beste hizkuntz atlasekin konparatuta, aldaketa batzuk egin (tamaina txikitzea, koloreen erabilera, mapako datuak idazkera ortografikoz erakustea, sarean kontsultagarri izatea...) eta gutxieneko erabilera bermatu nahi izan du. Hizkuntz kartografia klasikotik urrutiratu da, horrek emandakoa baztertu gabe, baina informazioa bere helburu eta beharrianetara egokituta.

Hasieran esan bezala, *EHHA* berandu samar heldu da gurera, baina bizi garen sasoirako egokitutako lana da. “Bapez baño, berandu oba” edo “Ondo eiteko ez da sekula berandu” diote atsotitzek. Berandu da, baina ez beranduegi. Orain informazioa xukatzea falta da: sekula ez da berandu horretarako, azken tantaraino informazioa atera eta ikasiz gozatu edo gozatuz ikasteko; ezta informazioa berrerabili eta beste egitasmo batzuei bidea zabaltzeko ere.

5. BIBLIOGRAFIA

- AURREKOETXEA, Gotzon; VIDEGAIN, Xarles: “Euskal Herriko Hizkuntz Atlasak”, *in* Euskera 38 (1993), 529-647.
- AURREKOETXEA, Gotzon; VIDEGAIN, Xarles: “Euskal Herriko Hizkuntz Atlasak”, *in* Ikasgelatik plazara (1990), 38-67.
- AURREKOETXEA, Gotzon: “Euskal Herriko Hizkuntza Atlasak (EHHA): inkesta metodologia eta ezezko datuak”, *in* Euskera 31 (1986), 413-424.
- ETXEBARRIA, Jose Mari: “Euskal Herriko Atlas Linguistikoaren Historiarako”, *in* Euskera 31 (1986), 375-412.
- EUSKALTZAINDIA: *Euskararen Herriz Hizkeren Atlasak (EHHA)*, I-II-III liburukiak, Bilbo, 2010-2011.

- JAUREGIZAR, Amaia: "Pedro de Yrizar eta *EHHA*", in *Egan* 2011-1/2 (2011), 111-123.